BIZITEGI ERAIKINA — LOIOLA 19

D MAILA





Egilea eta data: Jose Maria Mujica; 1888

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, jatorriz behe oina, lau goi oin eta beste bat mantsardatua dituena, gehi jasodura atzeraeman bat (1924koa). Harlanduzko fatxada, zurezko begiratokia duena bao zentralean (jatorriz). 1917an behe oineko bao zentrala eta ezkerraldekoa bateratu egin zituzten, eta 1955ean behe oineko fatxada berriz eraldatu zuten. Jatorrizko proiektua komuna da Arrasate 27ekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.

2.- Berariazko erregimena.
A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokia.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
* Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakoari jarraituz.
* Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.